



**ERABAKIA, 2024ko EKAINAREN 19koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ARGITARA EMATEKO 2023/24 IKASTURTERAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNEN DEIALDIA, UPV/EHUko EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEZAK GESTIONATUA, 90-60 ECTSko MASTERRETAKO IKASLEEI IKASTEKO LAGUNTZAK EMATEKOA.**

Nazioarteko mugikortasunerako Erasmus+ programaren helburua da, goi mailako hezkuntzaren arloan, unibertsitateko ikasleen mugikortasuna sustatzea, beren ikasketa maila edozein delarik. Deialdi honek aurrekoen bide beretik doa, eta mugikortasun ekintzak eta atzerriko erakundeekin trukeak bultzatu nahi ditu.

Azaldutakoaren harira, kreditua egon badagoela kontuan izanda, eman dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau

### ERABAKI DUT

Argitaratzea 2024/25 ikasturteko nazioarteko mugikortasuneko deialdia, 60-90 ECTSko masterretako ikasleei ikasteko laguntzak ematekoa. Laguntzak esleitzeko, UPV/EHUren nazioarteko mugikortasunerako arautegiari jarraituko zaio (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28an hartutako ERABAKIAREN bidez onartua), horren bidez onartu baitzen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen nazioarteko mugikortasunerako arautegia eta ondorengo arau espezifikoak. Horretarako guztirako, bada, honakoa xedatu dut:

### OINARRIAK

1.- HELBURUA .....	1-2
2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK .....	2
3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAR .....	2-3
4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA .....	3-4
5.- OKERREN ZUZENKETA .....	4
6.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK .....	4-5
7.- ERABAKIA: .....	5
8.- SEPIEren DIRU LAGUNTZAK ERASMUS+ PROGRAMAN.....	6
9.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK.....	6-10
10.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.....	10-11

### 1.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Erasmus + programan 2024/25 ikasturtean parte hartuko duten masterreko ikasleak hautatzea, UPV/EHUren Euskara, kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak gestionatuta.



Honako masterreko ikasle hauek hartuko ahal dute parte:

- a) 60-90 ECTSko master ofizialetako ikasle berriak, UPV/EHUkoak zein beste unibertsitate batzuetakoak.
- b) 2023/2024 ikasturtean 60 ECTS kredituko masterren batean matrikulatuta egonik 2024/25 ikasturtean gutxien dela 15 kreditu egingo dituzten ikasleek.

## 2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo mugikortasunak dirauen aldiaren, bizileku duen herrialdean aitortua izatea errefuxiatu, aberrigabe, egoiliar iraunkor, egoitza baimena indarrean duen aldi baterako egoiliar izaera edo ikasketa egonaldirako baimena izatea mugikortasunak dirauen bitartean Estatuko legediari jarraituz. Ikasle onuradunek egiaztatu beharko dute egonaldi- edo egoitza-baimen bat dutela, Schengen eremuan edo 801/2016 Zuzentarauak barne hartzen dituen Europako beste herrialdeetan egingo den egonaldi osoa hartzen duena. Baimen hori ikasketak hasi dituen herrialdeko agintariak igorriko dute, lekualdatzea hasi aurretik. Halakorik ez badu, ez du dirulaguntzarik jasoko.

2.2.- Eskarian egiterakoan, sarrera berriko ikasleak izena emanda izan beharko du UPV/EHUko master batean, masterreko arduradunaren oniritzia eskaria egiteko. Masterrean jada matrikulatuta dagoen ikasleak ere masterreko arduradunaren oniritzia izan beharko du eskaria egiteko.

Mugikortasuna egingo duen ikasturtean ere (2024/25) UPV/EHU matrikulatuta egon behar du ikasleak, mugikortasunaren oinarri izan duen programan. Osterantzean, eskaria bertan behera uzten dela ulertuko da.

2.3.- Beste erakundeetan irakasgaiak emateko erabiltzen den hizkuntza kontuan hartuta, ikasleak egiaztatu beharko du hizkuntza horretan ezagutza nahikoa daukala. Unibertsitate batzuetan hizkuntzaren jakite maila zehatz bat eskatzen dute. Ikasleak, eskariarekin batera, beste unibertsitatean eskatutako hizkuntza maila egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

## 3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK

3.1.- Mugikortasunerako laguntza bakar bat izan daiteke ikasturteko. Erasmus programaren kasuan aukera dago ikasturte berean Erasmus ikasketak + Erasmus praktikak egitea (ikasketa planetik kanpoko borondatezko praktikak enpresetan).

3.2.- Helburuko unibertsitatean, gehienez, 12 hilabete iraungo du.



3.3.- Mugikortasun egonaldiaren iraupena bat etorriko da UPV/EHU eta atzerriko unibertsitatearen artean sinatutako hitzarmenean ezarritakoarekin eta behin betiko zehaztuta geratuko da Konpromiso Akademikoan (*Learning Agreement*).

Errektoreordetzak kontuan hartuko ditu UPV/EHUko ikastegietatik egonaldiaren iraupena aldatzeko egiten diren eskaerak, betiere, behar bezala arrazoituta badaude, eta, behin aztertuta, onartu edo ezetsi egin ditzake.

3.4.- Gehienez ere titulazioko kredituen % 50a aitortu ahal izango da.

3.5.- Ikasleak 2 eta 12 hilabete bitarteko mugikortasuna egin dezake ziklo bakoitzeko Erasmus ikasketak programan. Mugikortasun hori prestakuntza praktikoko aldi batekin konbinatu daiteke, prestakuntza praktikoko aldia eskatzen duen zikloko 12 hilabeteko gehieneko mugimendutik deskontatuko dena. Hamabi hilabete horien kalkuluan Erasmus praktikak programaren hilabeteak sartzen dira.

3.6.- Mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duen ikaslek plaza bat lortzeko lehentasuna izango du nazioarteko bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurrean, titulazio berean edo beste batean.

## 4.- ESKAERA EGITEKO MODUA

### 4.1 Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaera egiteko, erabaki honekin batera web orrian argitaratutako eredu normalizatua erabiliko da (3. eranskina).

Eskatzaile bakoitzak eskabide bat aurkez dezake gehienez. Hutsak eta akatsak zuzentzeko epearen ondoren ez dira aintzat hartuko osagabe jarraitzen duten eskaerak.

Aukeran dauden unibertsitateen zerrenda Nazioarteko Harremanen Bulegoaren web gunean argitaratuta dago. **60 ECTSko masterretako ikasle berriek 2025ko urtarriletik irailera bitartean baino ezin dute egin mugikortasun aldia.** Mugikortasuneko koordinatzaileen izenak eta helbideak lotura honetan daude eskuragarri:

<https://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/harremanetarako>

Eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

1. Eskari orria bete, sinatuta eta masterreko arduradunaren oniritziarekin (3.eranskina).
2. Indarrean dagoen NANaren edo AIZren fotokopia.
3. Eskatutako laguntza kobratu nahi den banku-kontuaren titulartasun-datuen kopia (**IBAN kodea BARNE**). Titularraren izena kopian agertu behar da, eta



kontuak Espainiako banku batekoa izan behar du. Eskari egilea libretaren titularra edo titularkidea izan behar da. Laguntzaren eskatzaileak aurkeztu beharreko banku-kontuaren titularra izan beharko du.

4. Hizkuntza ziurtagiri ofizialen kopiak, hizkuntza maila egiaztatzeko.
5. Onarpen gutuna, masterreko arduradunak sinatua. Gutun eredia web gunean dago eskuragarri (2023/24 ikasturtean 60-90 ECTSdun masterren batean matrikulatuta dauden ikasleek ez dute gutun hau aurkeztu behar).
6. Masterrera egiteko aukera ematen duen titulazioko espediente akademikoaren fotokopia (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea kanpoko ikasleek baino ez).
7. MECD-k (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak) edo Eusko Jaurlaritzak ikasketetarako emandako beka orokorraren onuradun izatea erakusten duen agiriaren fotokopia.

## 4.2 Eskariak aurkezteko epea eta era

Eskaerak aurkezteko epea **2024ko ekainaren 20tik uztailaren 03ra** bitartean egongo da irekita.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, Erasmus mugikortasun programan parte hartzeko interesa duten doktoregaiek eskaera eta dokumentuak aurkeztu behar dira, ahal den guztietan, honako hauen bidez:

- **UPV/EHUko erregistro elektronikoa**, <https://egoitza.ehu.es/web/guest/registro-electronico>, "eskabidearen titulu" gisa 24/25 Masterreko Erasmus Ezohiko Deialdia jarritz, eskabidearen "lehen destino" gisa campusen araberako zentroa eta "bigarren destino" gisa **Masterra dagoen zentroa/fakultatea** aukeratuz, **nazioarteko mugikortasunaren koordinatzailearen arretari**.

Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtairia (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera:

- Sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa
- Aurrez aurre, [erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan](#).
- Erregistro gaietan laguntzeko sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez.



- Posta bulegoetan. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria datatuko badu.
- Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrira UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Eskaera posta-bulego baten bidez aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Erasmus+ MASTER Deialdia  
Bizkaiko Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa  
Liburutegi eraikina 2 – Sarriena auzoa z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)

## 5.- OKERREN ZUZENKETA

Eskabideak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluan adierazitako baldintzak, eta, hala badagokio, 39/2015 Legearen 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aldez aurretik ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsa zuzentzeko eskatzen diren pertsonen **4.2 oinarrian aurreikusitako bitartekoen bidez aurkeztu beharko dute eskatutako dokumentazioa.**

## 6.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Nazioarteko Harremanen web gunean argitaratuko da deialdi bakoitzean mugikortasunerako eskainitako plazak, zehaztuta zein masterrek eskaintzen duen. Zerranda horretan ageri diren lekuak baino ezin izango dira aukeratu.



## 6.1.- Hautagaiak

Plaza hauetarako hautagaitzat joko dira nazioarteko mugikortasun eskaera egitean Erasmus+ programako master batean izena emanda edo matrikulatuta egonik atzerriko unibertsitateek eskatutako hizkuntza ziurtagiriaren jabe diren ikasleak.

## 6.2. Hautaketa irizpideak

Hautaketarako oinarria merezimendu akademikoa izango da. Beraz, horretarako, kontuan hartuko da 2024/25 mugikortasun deialdiko hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak aurkeztu duen batez besteko nota.

Irizpide horren arabera, esleipena honela egingo da:

- a) Lehentasuna izango dute mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleak.
- b) Plazak batez besteko nota handiena duten eskatzaileei esleituko zaizkie.
- c) Ikasleren batek plazari uko egingo balio, eta egutegia dela-eta posible izango balitz plaza berriz esleitzea, plazarik lortu gabe geratu diren ikasleen artetik batez besteko notarik onena duen ikasleari esleituko zaio.

## 6.3.- Uko egitea

Azken ebazpena argitaratuta, 10 egun balioduneko epea emango zaio interesdunari **mugikortasuna onartzeko edo esleipenari uko egiteko, 4.2 oinarrian aurreikusitako bitartekoen bidez** aurkeztutako inprimakiaren bidez (7. eranskina).

Horrela egiten ez duen ikasleak ezin izango du nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu hurrengo ikasturtean.

## 7.- PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK

Deialdian hautatutako pertsonak konpromiso hauek hartuko dituzte:

### 7.1. Egonaldiaren aurretik

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da interesatua abiatu baino (9. Eranskina), gutxienez, hamabost (15) egun lehenago:

1. Hiru alderdiek sinatutako Akordio Akademikoa
2. Bidaia-asegurua kontratatu izanaren egiaztagiria, aseguruaren estalduren eta ordainketaren deskribapena jasotzen duena.



3. Joan-etorriko bidaia-txartelak, ekologikoa zein estandarra izan. Dokumentu horiek beharrezkoak dira bidaia-egunen finantzaketa justifikatzeko.
4. OLS hizkuntza-proba egitea (Ikusi oharrak [OLS web orrian](#))
5. Mugikortasunerako dirulaguntzen hitzarmena

Mugikortasun horretan parte hartzen duenak bidaiako laguntza-aseguru bat izan beharko du, gaixotasunagatik (COVID-19a barne) edo istripuagatik, aberriratzeagatik eta osasun-lekualdaketagatik asistentzia mediko eta farmazeutikoko estaldurak barne hartzen dituen.

Bidaia-asegurua kontratatzea Erasmus+ programaren betebeharra da, eta laguntza ekonomikoa jasotzeko nahitaezko baldintza. UPV/EHUk IBILI-EHU aseguru eskaintzen du. Asegururik gabe, OLS probarik gabe, akordio akademikorik gabe eta/edo partidaren aurretik sinatutako dirulaguntzetarako hitzarmenik gabe egindako mugikortasunak ez dira finantzatuko.

## 7.2. Egonaldian zehar

Mugikortasuna hasi eta hilabeteko epean, helmugako unibertsitatean hasi dela egiaztatu beharko da hasierako ziurtagiriaren bidez, UPV/EHUren formatuan, edo informazio bera jasotzen duen xede-erakundearen beste baten bidez. Ziurtagiriak jatorrizkoa izan behar du, zirriborrorik eta zuzenketarik gabea, eta helmugako erakundeko harrera-unitateko zuzendaritzak sinatu eta zigilatu behar du.

## 7.3. Egonaldiaren ondoren

1. Egonaldiaren amaierako ziurtagiria, UPV/EHUren edo helmugako erakundearen beste formatu batean, informazio bera jasotzen duena. Benetako egunak jasoko dira. Ziurtagiriak jatorrizkoa izan behar du, zirriborrorik eta zuzenketarik gabea, eta helmugako erakundeko harrera-unitateko zuzendaritzak sinatu eta zigilatu behar du.
2. Erasmus+ ikaslearen azken txostena. Online egingo da, betetzeko gonbidapena jaso ondorengo 30 egun naturalen barruan. Osatu ezean, Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzak laguntza itzultzeko eskatu ahal izango du.

## 8.- ERABAKIA

Nazioarteko Harremanen webgunean jakinarazpen bat argitaratuko da zuzendu beharreko eskabideekin. Dokumentazioa zuzentzeko epea 10 egun balioduneko izango da. Epe hori igarota, esleitutako plazen, itxaroten dauden hautagaien eta plazarik gabeko ikasleen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira. Ondoren, eskatzaileek 10 egun balioduneko epea izango dute alegazioak aurkezteko, behin-behineko hautaketari dagokionez. Epe hori igarota, emandako plazen behin betiko zerrenda argitaratuko da.



Ikasleek 10 egun baliouduneko epea izango dute plaza onartzeko edo plazari uko egiteko, eta horren berri emateko, posta elektronikoz, masterreko titulua atxikita daukan ikastegiko mugikortasuneko koordinatzaileari Epe barruan uko egin eta onartu ezean, ulertuko da emandako mugikortasunari uko egin zaiola omisioz, eta zigorra izango du. Ondorioz, errektoreordetza honek gestionatutako mugikortasun programa guztietako eskari eta hautapen prozesuetatik kanpo geratuko da ikaslea, bai deialdi berean, bai hurrengoan.

Nolanahi ere, mugikortasuna gauzatzeko 2024/25 ikasturterako matrikula egin beharko da eta hiru aldeek konpromisoa akademikoa sinatu.

Webgune honen bidez, jarraipena egingo ahal zaio prozesu osoari. Era berean, ikasleek GAUR aplikazioan ikusi ahal izango dute beren eskariaren egoera.

Plazak esleitzeko erabakiak agortu egiten du administrazio bidea. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Euskara, kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua).

## 9.- SEPIEren LAGUNTZA EKONOMIKOAK ERASMUS+ PROGRAMAN

Erasmus+ mugikortasuna izango duten ikasleek SEPIEk ezarritako laguntza ekonomikoa ere izango dute. Diru laguntza hori jasotzeko, mugikortasuneko ikasleak mugikortasuna hasi baino lehen sinatu beharko dute laguntza hitzarmena.

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da SEPIEk komunikatutako zenbatekoa eta hitzarmenean sinatutako hilabete kopurua biderkatuz ateratako emaitza.

**CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatzeke, eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanen bulegotik eska daiteke egiaztatu ez diren hilabeteengatik jaso diren diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.**

Webgunean, SEPIEk herrialde talde bakoitzerako [ezarritako zenbateko ekonomikoen taula](#) dago, bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera.

Aukera gutxiago dituzten ikasleentzako laguntza gehigarri eta bidaiari ekologikoei buruzko informazioa eskuratzeko, kontsulta ezazu Nazioarteko Harremanen webgunea: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>





## 9.1 Laguntza ordaintzea

Laguntza bi (2) ordainketatan ordainduko da:

1. Lehenengo ordainketa laguntzaren % 70aren baliokidea izango da, eta
2. Bigarren ordainketa, jarduera egin ondorengo likidazioari dagokiona.

Bi ordainketak kudeatzeko izapideak hasteko, ezinbestekoa da 9. eranskinean jasotako kontaktuei zuzendutako dokumentazioa aurkeztea.

## 10.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK

### 10.1.- Eskubideak eta betebeharrak.

ERASMUS mugikortasun beka baten onuradunak "ERASMUS ikasle gutunean" ezarritako eskubideak eta betebeharrak ditu; (<https://www.ehu.es/documents/2099535/33445828/13.+Carta+estudiante+erasmus+2.pdf/e15aaf8f-8400-1b90-b0d8-74bce16ede83?t=1649326458864>) webgunean daude ikusgai, eta harrera unibertsitateko arauak bete beharko dituzte han dauden bitartean.

### 10.2.- Onarpena atzerriko unibertsitatean

Mugikortasun plaza esleitua izateak EZ du esan nahi ikaslea nahitaez harrera unibertsitatean onartu dutenik. Ikaslearen erantzukizuna da harrera unibertsitatean sartzeko kudeaketa lana egitea. Ikasleak bete beharko ditu unibertsitate bakoitzak onarpen eskubideak aurkezteko (kasu batzuetan on line) ezartzen dituen epeak; izan ere, unibertsitate askok ez dute onartzen epez kanpo bidalitako eskaririk.

Halaber, bere ardura izango da ostatuaren gestioa unibertsitate horretan dagoen bitartean, bai eta unibertsitateak edo helburuko herrialdeak ezarriko luketen beste edozein baldintza nahitaezkorena ere.

Ikaslea ez badute onartzen esleitutako tokian, Nazioarteko Harremanen bulegoak (ikastegiko koordinatzailearekin batera), arrazoiak aztertu, eta libre legokeen beste toki bat esleitu ahal izango dio.

Ikasleak ez du tasarik ordaindu beharko harrerako unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen baitu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari aseguruaren edo ikasleen sindikatuatarako afiliazioaren gastuei aurre egiteko, edota material ezberdinen erabileraren gastuetarako (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak eta abar). Bertako ikasleei eskatzen zaien kopuru berbera izango da.



### 10.3.- Konpromiso akademikoa

Konpromiso akademikoa (*Learning Agreement*) UPV/EHUko masterreko arduradunarekin ezarritako ikasketa kontratua da. Bertan, harrera unibertsitatean egingo diren irakasgaiak eta UPV/EHUren ikasketa planetako kredituak adierazi beharko dira, aitortuko zaizkion kredituak, eta kontratua loteslea izan dadin, bi unibertsitateen baimen sinadurak izan beharko ditu. Ezin dira inolaz ere sartu dokumentu horretan UPV/EHU "gainditutzat" edo "suspentsotzat" jotako irakasgaiak. Eta ezin izango da eskatu irakasgai horien aitortpena harrera unibertsitatean egindako irakasgaien truke. Matrikulatutako irakasgaiak egin ahal izango dira, baldin eta ikaslea azterketara aurkeztu ez bada eta kalifikazioetan "aurkezteke" agertzen bada.

Ikasketa planak eskatzen duen kreditu kopurua baino gehiago matrikulatu behar bada, eskatutako gutxienezko kopurura iristen ez delarik, ikastegian baimena eskatu beharko da, bestela ezin izango baita matrikulan jaso.

Egonaldiaren arabera, honako kreditu hauek egitea gomendatzen da (UPV/EHU matrikulatutakoak):

- Gutxienez, 12 eta, gehienez, 15 kreditu; 2 hilabetetako egonaldietarako.
- Gutxienez, 24 eta, gehienez, 30 kreditu; 5 hilabetetako egonaldietarako.
- Gutxienez, 48 eta, gehienez, 60 kreditu; 10 hilabetetako egonaldietarako (90 ECTSko masterren kasuan bakarrik).

Erasmus programaren kasuan, ezinbestekoa izango da iraupenarekin bat etorrira zehaztutako gehieneko kredituetan matrikulatzea. Erasmus Mundus programetan parte hartzen duten ikasleen kasuan, ikasleak mugikortasuna egingo duen lauhilekoan egingo dituen irakasgaiak osatuko dute konpromiso akademikoa.

### 10.4. Etekin akademikoa

Ikasleak harrera unibertsitatean etekin ona duela egiaztatu beharko da. Hots, egonaldian konpromiso akademikoan jasotako kredituen erdia gainditu beharko du gutxienez.

Ehuneko hau gainditu ezean, eskatuko zaio mugikortasuna egiteko eman zaizkion laguntzak itzultzeko.

### 10.5.- Atzerriko unibertsitateko hizkuntza jakitea

Helburuko erakundean jasoko dituen irakasgaiei dagokien hizkuntzaren jakite-maila egoki eta nahikoa izan beharko da. Zenbait unibertsitatek hizkuntzaren jakite maila espezifikoak eskatzen dituzte.

Erasmus+ mugikortasun bateko onuradunek hizkuntza test bat egin beharko dute OLS plataforman (Ikusi oharrak [OLS web orrian](#)), nazioarteko harremanen bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta. Test hau maila-proba bat da eta ez du ziurtagiri ofizialik ematen.



Era berean, plaza eman ondoren, mugikortasuna hasi baino hilabete lehenago gutxi gorabehera, posta elektronikoa bat bidaltzen da Online Linguistic Support aplikaziotik (OLS) ikaslearen posta pertsonalera. Proba hori helmugako irakaskuntza nagusiko hizkuntzan mugikortasun-aldia baino lehen egin behar da, hizkuntza horretako jatorrizko pertsonentzat izan ezik. Hizkuntzaren ebaluazioa egiten ez bada, ezingo da Erasmus+ mugikortasuna egin, eta baja emango zaio ikasleari Erasmus+ programan. Horrek esan nahi du ez duela ez bekarik ez onarpen akademikorik jasoko kanpoan egindako ikasketengatik.

OLS plataformaren bidez, doako, aukerako eta online hizkuntza-ikastaroak egin ahal izango dira. Hizkuntza probari buruzko informazio gehiago OLS webgunean.

## 10.6.- Mugikortasuna gauzatzea

10.6.1.- Ikaslea ezarritako egunean hasiko da helburuko ikastegian. Hala ez bada, mugikortasunari uko egin diola ulertuko da. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetzari GAUREn bidez. Izan ere, jakinarazi ezean, baztertuta geratuko da UPV/EHUK gerora egingo dituen mugikortasun programen deialdietako hautapen prozesuetatik.

Mugikortasunaren iraupena edo lauhilekoa aldatu ahal izateko, Nazioarteko Harremanen bulegoak eta masterreko arduradunak onartu beharko dute, bai eta harrerako unibertsitateko programaren arduradunak ere, kasuan kasuko arrazoiak aztertu eta gero. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.12. atalean aurreikusitako egoeretan egongo da ikaslea.

10.6.2.- Egiatzatu beharko da, mugikortasuna hasi edo bukatu denetik **hilabete BATEKO** epean, benetako egonaldia eta horren iraupena, egonaldi hasierako (*Certificate of arrival*) eta amaierako (*Certificate of Attendance*) egiaztagiriekin. Atzerriko unibertsitateak behar bezala sinatu eta zigilatu beharko ditu bi horiek. Era berean, egonaldi egiaztagiriak adierazten badu egin beharreko denbora baino hilabete gutxiago egin direla han, egiaztatu gabeko hilabetei dagokien dirua itzultzeko eskatuko da.

## 10.7.- Nahitaezko dokumentazioa

10.7.1.- Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da eta atzerriko unibertsitatera iritsi aurretik, **bidaiarako aseguru bat** egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, hilez gero, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. Aseguru horren ordainagiriaren kopia bat bidali beharko da masterra dagoen fakultateko nazioarteko harremanetarako koordinatzaileari, mugikortasuna hasi baino lehen.



10.7.2.- Mugikortasunari hasiera eman aurretik, sinatuta aurkeztu behar da GAUR plataformako profilean dagoen **hitzarmena** (ERASMUS subentzio hitzarmena), bai eta aseguruaren kopia. Egonaldia amaitu ostean, IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA egin beharko da, web gunearen bidez.

Laguntza hitzarmenak, UPV/EHUren nazioarteko mugikortasunerako arautegiarekin eta oinarri hauekin batera, arautzen ditu nazioarteko mugikortasunerako deialdi honen babesean parte hartzen duen ikaslearen baldintzak, eskubideak eta betebeharrak.

10.7.3.- ERASMUS mugikortasunen kasuan, ERASMUS, bulego honek jasotako Certificate of Attendance delakoaren datak tresnan sartu ondoren, tresna horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei **azken txostena** betetzeko.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatu behar da, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektronikoa bat jasoko duzue "REPLIES-WILL-BE-DISCARDED@EC.EUROPA.EU" helbidetik (letra xehez) eta Spam karpetera irits daiteke. Bertan esteka bat ematen da online txostena baliatu ahal izateko eta jaso eta 30 egun naturalen epean itzultzeko.

**De:** [eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu](mailto:eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu)  
**Asunto:** Solicitud de informe individual del participante Erasmus+ / Erasmus+ individual participant report request /

Inkesta bete ezean, jasotako laguntza itzultzeko eska daiteke, eta ERASMUS mugikortasunaren aitortpena gal daiteke.

10.7.4.- Hala eskatzen duten herrialdeetan egonaldia egiteko edo bertara sartzeko beharrezkoak diren bisatuak eskuratzeko izapideak egin beharko dira; eta joan aurretik egin beharko da, halaber, atzerriko unibertsitatean sartu ondoren herrialde horretan egoteko beharrezkoa den beste zeinahi administrazio izapide. Ez da Nazioarteko Harremanen bulegoaren erantzukizuna izango izapide hori egitea ahazteagatik ikasleak mugikortasunerako aukera galtzen badu.

## 10.8.- Baldintzetan edo betebeharrak ez betetzea

10.8.1.- Betebehar hauek guztiak arrazoirik gabe ez betetzeak hainbat ondorio ekar ditzake, kasuan kasu: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, finantza hitzarmena ezeztatzea (eta ondorioz, aurretik jasotako finantza laguntza guztia itzultzeko derrigortasuna) eta errektoreordetatik gerora sustatutako zeinahi mugikortasun programatako hautapen prozesuetatik kanpo geratzea.

Era berean, kreditu, hizkuntza eta bestelako baldintzarik beteko ez balitz helburuko unibertsitateira iristerakoan, bertan behera geratuko da automatikoki programan.



10.8.2.- Zehazkiago, hitzarmenean zehaztutako egonaldia baino egonaldi laburragoa eginez gero, ikaslea behartuta egongo da jasotako laguntza proportzio horretan itzultzera, CERTIFICATE OF ATTENDANCEn agertutako egun efektiboen kalkulua ikusita.

10.8.3.- Bere aldetik, errendimendu akademikoaren arloko betebeharrak bete ezean, jasotako laguntza osoa itzuli beharko da.

## 11.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Betebeharretan huts egiten den kasuetan, hau izango da dirua itzultzeko prozedura:

- a) Euskara, kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak interesdunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura ireki dela eta horren arrazoiak azalduko dizkio. Instruktoke bat izendatuko du eta hamabost egunetako epea zabalduko du ikasleak alegazioak egiteko eta egoki deritzen frogak proposatzeko. Prozedura irekitzearekin batera eten egingo dira ordainketak.
- b) Alegazioak jasota edo horiek egiteko epea alegaziorik gabe igarota, aurrera jarraituko da prozedurarekin eta interesdunari onartu zaizkion frogak egingo dira. Horren ostean, erabaki proposamena aurkeztuko da, eta interesdunari jakinaraziko zaio, azken alegazioak egin ditzan. Euskara, kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak izango du eskumena erabakia emateko.

Prozedura ebazteko gehieneko epea sei hiletakoa izango da. Erabakiak xedatuko balu ikasleak betebeharretan huts egin duela, laguntza jasotzeko eskubidea galdu egin duela adieraziko du, eta hala dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitateari dagokion zenbatekoa itzuli behar diola, bi hilabetetako epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen duenetik hasita. Epe hori borondatezko epea izango da.

- c) Borondatezko epearen barruan dirua itzuli ezean, horren berri emango zaio Gerentziari, Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeari eta gaian eskumenak dituzten Euskal Herriko Unibertsitateko organoei, dagokien lege eta arauen arabera neurriak har ditzaten.

Aurreko 9.9. atalean dirua itzultzeko ezarritako beharra osorik edo zatika bete ezean eta egoera honek dirauen bitartean, debekatuta egongo da matrikula, titulu emate, kalifikazio berririk egitea, bai eta espediente akademikoari buruzko informazio oharra lortzea ere. Era berean, ezin izango dituzte UPV/EHUren gainerako zerbitzuak erabili.



**OHARRA:** Ikasle batek UPV/EHUri leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik mugikortasuna bukatzerik ez badu, unibertsitateak ez ditu bere gain hartuko haren gastuak (hegazkin billeteak, ostatu erreserbak eta abar).

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal zaio Euskara, kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua).

Leioan, 2024ko ekainaren 19an

**M. Juncal Gutierrez Mangado**  
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen  
arloko errektoreordea